

2 0 0 1

Literatur Sariak



"R. M^o Azkue"
saria



Idazle gazteak

AZKUE SARIAK 2002

Oro har maila ona izan da aurtengoan. Narrazioetan, ohiko ipuin-itxurakoen artean, kontakizun modernoak ere ageri dira, ikuspuntu fokalizatuak eta kontamolde bitxiak baliatzen dituztenak.

Olerkien atalean, parte hartze eta kalitate maila apalagoak izan dira. Poema gehienak naturaren ingurukoak dira, baina ez dira falta izan maitasunezkoak edo euskarari gorazarre egiten diotenak.

NARRAZIOA A MAILA

1. SARIA: 27. zkia. «I'm zorri»

Giro kafkiarreko narrazio honetan irudimena, umorea eta amesgaiztoa nahasten dira emaitza biribila lortzeko.

2. SARIA: 77. zkia. «Ametsa egia bihurtuko ote?»

Errealismo kritikoan bete-betean kokatutako narrazioa da. Emakumezko baten ahotik Afganistango errealitate gordina eta amets itxaropentsuen berri ematen digu.

3. SARIA: 6. zkia. «Lagunen mesfidantza»

Narrazio hau thriller gisa planteatuta dago, aurpegi bikoitzeko pertsonaiak, epaiketak eta ustegabeko amaiera dira erabiltzen dituen osagaiak.

OLERKIA A MAILA

1. SARIA: 2. zkia. «Zeruko zubia»

Naturako elementuak erabiliz, poesia bisual eta sinestetikoa lortzen du egileak, lerro labur eta errima sujerikorrez.

2. SARIA: 3. zkia. «Negu hotza»

Aurrekoaren ildo berean, natura du gai nagusi. Pertsonifikazioa da erabiltako baliabidea, urtearen joan-etorrian.

3. SARIA: 39. zkia. «Irrifarra»

Alaitasunaren aldeko kantua da, gizateria irrifar baten inguruan elkartzeko saio eder bat.

R.M. AZKUE SARI-BANAKETA

Bilbon, egoitzan, 2002-II-21

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Berriz ere bilduak gara egun, Resurreccion Maria Azkue literatura sarien zabaltzeko eta pozik ikusten dut 238 izan direla aurkeztu diren lanak eta horietan 29 Arabatik, 55 Bizkaitik, 90 Gipuzkoatik, 25 Iparraldetik eta 39 Nafarroatik. Uste dut, gero eta gehiago aurkezten direla eta niretzat hori pozgarria da. Badira irabazleak, entzunen ditugu gero. Nahi nituzke berehala, nire zorionik bizienak eman saridunei. Eskerrak ere, ukan dituzten kontseilariei, irakasle eta horietarit, horiek behar den bezala lanean ari izan baitira eta behar den bezala kudeatu bai dituzte eta azkenik ere, epaimahaikoei, horiek ere bere lana egin baitute eta behar den bezala jokatu baitira. Eta azkenik, ez nituzke hemen ahantzi nahi, ene ondoan diren jaun horiek, BBKko zuzendariak, handik etorriak eta haiekin eta haiei esker, sari horiek ukanen baitituzue. Beraz, aspaldi honetan elkarrekin lanean ari baikara, erran nezake eskertzen ditudala egiten dutenarengatik, zeren eta nahi ala ez, zuetan, zuengan, izanen direla idazle batzuk, biharko idazleak izanen direla eta hori pozgarria da eta Euskaltzaindiak BBKrekin zerbait egiten duela zuen alderako. Beraz, eskerrak denei eta zorionak zuoi.

* * *

Bukatu baino lehen eta ikusten baitut hemen batzuk aldi bat baino gehiagotan agertzen direla... Anton Alberdik lehen saria jaso zuen A mailako narrazio alorrean 1999ko urtean. Gero Hodei Arregik, hirugarren saria jaso zuen B mailako olerki alorrean, 2000ko deialdian. Horrezaz gain, iaz ere akzesita lortu zuen poesian. Estibaliz Lizasok akzesita lortu zuen A mailako narrazio alorrean, 1997an. Irati Goikoetxeak, honako sariak lortu ditu: A mailako 3. saria, olerkian, 1997an; B mailako 2. saria, olerkian, 1998an; B mailako akzesita, narrazioan, 1998an; B mailako akzesita, olerkian, 1999an eta B mailako lehen saria, olerkian, 2000. urtean. Horrek erakusten du zuetan badirela batzuk zinez idazteko on direnak eta segituko dutenak. Hori da guretzat zinez pozgarri dena. Eta uste dut Jose Ramon Bilbaok erran

duen bezala, berriz ikusiko dugu. Zuetarik lehen aldikotz izanen da publikatuak izanen zaretela eta hori gauza ederra da. Beraz, zorionak bihotz-bihotzetik eta eskerrak ere, zinez bihotz-bihotzetik irakasleei.

Horretan uzten dut, eskerrik asko.

R. M. AZKUE SARIEN BANAKETA

Bilbo, egoitza, 2002-II-21

*Joserra Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

Eguerdi on guztioi, eta zorionak irabazleoi.

Lehenengo eta behin, eskerrik asko hona hurreratu zaretenoi, idazle gazte hauei babesa ematera. Bai nire izenean eta bai eurenean ere, Euskaltzainburua, euskaltzainak, prentsa eta hemen gauden guztiok ikusteak, jantzi egiten duelako eta inportantzia ematen diolako ekitaldi honi.

Nik neuk, berriro esango dut iaz esandakoa, erabat pozten naizela hemen dugun euskal idazle gazteen lurraldekotasun zabala ikustean, eta batez ere Iparraldeko ordezkariak ikustekoan. Gaur bertan ikusi dugu hedabideetan, Unesco-ren hizkuntza mehatxatuen atlasean, euskara sartuta dagoela, eta Iparraldean bereziki, desagertzeko arrisku bizian dela. Horrexegatik bada, poz bikoitza ematen du hango ordezkariak gure artean izateak, han, gure hizkuntzaren etorkizuna euren eskuetan dagoelako, inoiz baino gehiago.

Zorionak Ohiana, Leire, Ibai eta Ihintza. Ekin orain arteko bideari, eta egon seguru, gure laguntza eta maitasun osoa izango duzuela. Zorionak baita ere Hegoaldeko irabazleoi. Maitasun osoz zuei ere, zelan ez.

Kontuan izan, orain hartu duzuen saria, benetako sariaren lehenengo zatia baino ez dela. Bigarren zatia, liburua argitaratzen denean hartuko duzue, zeuon izena, Euskaltzaindiaren babesa duen lan batean ikustean. Orduan izango gara elkarrekin berriro ere.

Amaitu aurretik ez ditut aipatu barik utzi gura, gazte hauek idazle izatera bultzatzen dituztenak, eurekin batera etorri diren irakasleak. Itzelezko meritua duzue, hain adin zailean dauden gazteak, literaturarantz eroatean. Eskerrik asko egiten duzuen ahaleginagatik.

Eta besterik ez. Eskerrik asko guztioi Bilbao Bizkaia Kutxa-ren izenean. Guk geure aldetik, euskal kultura eta hizkuntza zaintzeko ardurari eutsiko diogu, zuen lana babestuz, denok elkar ondo hartuta ere, gutxi garelakoan lan erraldoi honetan. Beste barik, hurrengora arte.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA-
-EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V.**

R. M. AZKUE Sarria

Bilbo, 2002, urriak 10

2001.urteko sarituen argitalpena

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza

Aurkezpen-mahaia:

1. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.
2. Gorka Martinez, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioburua.
3. Jose Ramon Bilbao, BBK-ko Elebitasun Zerbitziburua.
4. Joseba Butron, euskaltzain urgazlea eta R.M. Azkue Sariaren epaimahaikidea.
5. Manu Lopez de Ganesi, R.M. Azkue Sariaren epaimahaikidea.

* * *

Eguerdi on euskaltzainburu, euskaltzain oso, urgazle, irabazle, familia eta lagunok. Agur kazetari eta enparauok.

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak egindako deialdi-partaidetzan maila bi bereizten dira adinaren arabera:

– A maila: 1988, 89, 90 eta 91 urteetan jaiotakoak.

– B maila: 1984, 85, 86 eta 87an jaiotakoak.

Eta generoari dagokionez NARRAZIOAK eta OLERKIAK maila bakoitzerako eskatzen diren idazlan sarituak argitaratzen dira liburuki honetan.

Bai BBK Fundazioak eta bai Euskaltzaindiak lehiaketa eta liburuki honekin eskolalako neska-mutilak Literaturgintzara bultzatzeaz gainera, euron ar-

tean irakurketa indartzea dute helburu nagusi. Eta aldi berean guri nagusiagotxuoi ere eskaintzen digute irakurtzeagaz gozatu ahal izateko.

Beraz zorionak irabazle guzti-guztiori eta besteei, sariketarik kanpo gelditu direnei iraupena eta irakurtzera gonbidatu daude eta gaude.

Mila esker Bilbao Bizkaia Fundazioari eskainitako babesarengatik; epaimahaian partaide izan zarenoi zuen ekarpen eta lan ixilagatik eta beste guztiok irakurtera gonbidatuta zaudete.

* * *

Oharra: 2002.urteko NARRATIBA eremuan, Espainia Estatu saria Getxoko Unai Elorriaga, San Nikolas ikastolako ikaslea eta idazle gazteak irabazi du. ZORIONAK. Dagoeneko badira bi: Bernardo Atxaga lehen eta, Unai Elorriaga orain. Euskaltzaindiaren izenean, 2002.eko epaimahaian, Literatura batzordeko Ana Toledo andrea izan da.

R. B. U.

AZKUE LITERATURA SARIAK:

2001eko liburua eta 2002ko oinarriak

2002-X-10

*Joserra Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxaren Elebitasun Zerbitzuko burua.*

Egunon, mahaikide zarien Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Joseba Butron eta Manu Lopez Gaxeni epaimahaikideak, eta Gorka Martinez BBK Fundazioko burua. Egun on baita be, etorri zarien kazetari, idazle gazte, euskaltzain eta beste lagun guztioi.

Urtero legez, ekitaldi honetan, beren-beregi gazteentzako diran Azkue Literatura sarien oinarrien barri emongo dogu eta, igaz irabazle izandako idazlanakaz egindako liburua aurkeztuko dogu baita be.

Oinarrioetan azpimarratzekoak dira partehartzaileen adina, arloak, sariak, epeak eta idazlanen erabilerea.

Adinari jagokonez, maila bi dagoz, bata 10-13 urte bitartekoena eta 14-17 urte bitartekoena, bestea. Literatur arloak be bi dira, *narrazinoa* eta *olerkia*.

Sariak 3 dira arlo bakoitzean, 300, 240 eta 180 eurokoak hurrenez hurren. Aipatu beharrekoa da baita be, idazleen laguntzaileek be euren saritxua daukiela, 60 eurokoa.

Epeak honeik dira: idazlanak aurkeztekoa, abenduaren 16ra arte; eta epai-mahairen erabakia, hilabete bi geroago emongo da jakitera, datorren urteko zezeila edo otsailaren 28rako, beranduenez.

Idazle gazteei gogoratu, lanak makinaz edo inprimagailuz idatzirik etorri behar dirala eta kontuan izateko saritu bako lanak deuseztatu edo apurtu egingo dirala. Beraz, jatorrizkoa gordetzea komeni da, norberaren gobernurako.

Ekitaldi honetan, igazko sariketako lanakaz egindako liburua be aurkeztuko dogu. Liburua antolatzen eta prestatzen, Jose Mⁿ Larrarte irakasleak jardun dau. Beraz, eskerrik asko berari be, gazteakaz hain eskuzabal jokatzeari gaitik.

Honaino helduta, nik be ezin dot itxi aipatu barik Unai Elorriaga, here-negun bertan Espainiako Narratiba Sari Nazionala eskuratu dauan gazte bizkaitarra. Aurretik Bernardo Atxagak egindako bidean jarri da, baina gazterik, 29 urtegaz baino ez. Zorionak emon gura deusaguz, bihotz-bihotzez eta hurrengo lanakaz be arrakastea lortu daijala opatu. Eta bide batez idazle gazteoi animoak emon, ispilu horretan zeuon burua be ikusita, literaturari lotuta jarraitu daizuen.

Ea *Azkie* sariak, Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxaren artean egi-ten diranak, idazle gazte asko eta onak ezagutarazteko balio daben. Beste barik, eskerrik asko etorri zarien guztioi.